

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BAKIOKO UDALAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak (aurrerantzean, HKEE) joan den abenduaren 22an aho batez onartu zuen Bakioko Udalaren ekonomiaren eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2020ko ekitaldiari buruzkoa.

2020ko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontabilitateko doiketak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 273 mila euroan murriztuko litzateke. Gainera, Epaitegiak ezin zehaztu izan du abenduaren 31ko Balantzeko ibilgetu- eta amortizazio-saldoek ondasunen eta eskubideen egiazko egoera islatzen dutenetz.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Halaber, adierazi da Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, bete egin direla aurrekontuaren egonkortasun helburuak. COVID-19ak eragindako krisialdiaren ondorioz, BFA 2020ko azaroaren 3ko Erabaki bitartez 2020ko eta 2021eko arau fiskalak etetea erabaki zuen eta bere horretan eutsi zien doiketa-planei. Udalak 2020an aurretik onartutako doiketa-plan bat zuen indarrean. Kontu-hartzaitzaren txostenak adierazi du sarreren eta gastuen exekuzio globala Planaren araberakoa dela eta zor-maila Planean aurreikusitakoa baino txikiagoa dela.

Udalak zuzentasunez bete du 2020an jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautu duen lege-araudia; alabaina, akats bat atzeman da Langileen atalean, izan ere lanpostu guztiak balioetsi dira soldata-igoera gehigarria eraginez, eta ez da, ordea, ordainsari-egokitzapen berezi eta salbuespenezko bat.